

GEHEGIZKO ABIADURAGATIKO ARAU-HAUSTEAK

Hiritara sartzeko hiriarteko autobia eta autobideen bide-tarteetan 100 km/h-tik beherako mugak ezarri badira, gehiegizko abiadura isun ekonomiko batekin zehatuko da, beheko taularen arabera. Gainerako ondorio administratibo eta penalak 100 km/h-ko abiadura gainditzean bakarrik sortuko dira, muga horretarako ezarritako baldintzetan.

Zinemometro bidez atzemandako gehiegizko abiaduragatiko arau-haustea

Muga km/h	20	30	40	50	60	70	80	90	100	110	120	130	Isuna	Puntuak
Gehiegizko abiadura Arau-hauste astuna	21	31	41	51	61	71	81	91	101	111	121	131	100€	0
	40	50	60	70	90	100	110	120	130	140	150	150		
	41	51	61	71	91	101	111	121	131	141	151	151	300€	2
	50	60	70	80	110	120	130	140	150	160	170	170		
	51	61	71	81	111	121	131	141	151	161	171	171	400€	4
	60	70	80	90	120	130	140	150	160	170	180	180		
	61	71	81	91	121	131	141	151	161	171	181	181	500€	6
	70	80	90	100	130	140	150	160	170	180	190	190		
Oso astuna	71	81	91	101	131	141	151	161	171	181	191	191	600€	6

■ GIDABAIMENA EDO GIDALIZENTZIA BERRESKURATZEA

Titularrak esleituta zeuzkan puntu guztiak galtzen dituenean, gidabaimenak edo gidalizentziak galdu egiten du bere indarra.



Berreskuratzeko, titularrak hauek egin behar ditu:

- **bideko sentsibilizazio- eta berreziketarikastaro** bat egin, **gutxienez 20 ordukoa, eta**
- Probintziako Trafiko Burutzan azterketa teoriko bat gainditu.



PUNTOAK BERRESKURATzea

Esleitutako puntu-kredituaren zati bat galdu duten titularrek bi aukera dauzkate:

- **bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-ikastaro bat egitea, gutxienez 10 ordukoa.** Ikastaro horrekin, gehienez ere 4 puntu berreskuratu ahal izango dituzte.

Modu seguru eta efizientean gidatzeko ikastaroak gainditzen dituenak, ezarritako baldintzak betez gero eta saldo positiboa izanez gero, bi puntu gehigarri lortuko ditu, gehienez hamabost puntu izan arte. Gehienez bi urtez behin egin ahal izango dira horrelako ikastaroak.

Ikastaro hau egin daiteke soilik:

- urtean behin, gidari profesionalen kasuan.
- 2 urtean behin, gainerako gidarien kasuan.

- denbora bat arau-hausterik egin gabe igarotzea.

- 12 puntuak berreskuratzeko dira, baldin eta 2 urtean ez bada puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin (arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe).
- Zehapena irmo egin denetik urtebetean ez bada zehapen hori eragin duen arau-haustearen idatzoharra egin, ez da punturik kenduko.

GIDABAIMENA ALDI BATERAKO KENTZEAGATIKO SOROSPEN-ASEGURUA

Borondatezko aseguru da. Aseguru horren helburua da aseguratzailerak sorospen bat ordainduko duela bermatzea (aldi jakin batean prestazio ekonomiko bat ordaintzea), bere gidabaimena aldi baterako kentzeagatik aseguratuak izan ditzakeen galera ekonomikoak arintzeko, esleitutako puntu guztiak galtzeagatik gidariak gidabaimena berriro lortu ahal izateko itxaron behar duen artean (3 hilabete gidari profesionalen kasuan).

Sorospen-aseguruekin batera, laguntza bat ere kontrata daiteke, gidabaimenaren puntuak partzialki berreskuratzeko ikastaro bat egiteko edo (puntu-saldoa agortzeagatik gidabaimenaren indarraldia galtzean) puntu guztiak berreskuratzeko ikastaro bat egiteko behar diren matrikulazio-gastuak ordaintzeko.



Izenak adierazten duen bezala, gidabaimena kentzeak aldi baterakoa izan behar du, eta, beraz, kanpoan uzten da gidabaimena behin betiko kentzea.



Aseguru honen kontratuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, **gidari profesionaltzat** jotzen dira: "Gidatzeko dagokion administrazio-baimena duen pertsona oro, lan-jarduera nagusia salgaiak edo pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailu motordunak gidatzea duena. Lan-jarduera egiten duen enpresak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatutako behar du, enpresa horretako langile gisa Gizarte Segurantzaren kotizatu duela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera. Enpresaburu autonomoa bada, ziurtagiriaren ordez, enpresaburuaren beraren adierazpena egingo da".